

Zuhotza
BERRIKETAN

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 221. alea - 2017ko abuztua



**Zapia jantzi eta jaietan
murgiltzeko prest**



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA




Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



17/18
CURSO IKASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK
Plazo de matriculación ABIERTO

ONGI ETORRI
euskarara

San Roke
jai zoriontsuak!

17-18 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4.mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat
MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 4TIK AURRERA
Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA**
Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat.
(Baldintzak betez gero)
Informa zaituz Udal Euskaltegian!

DEBA: 10:00-12:30 / 17:00-19:30
DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar Kalea,12 - Tel.:943 192 236

UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak - clases de euskara
www.udaleuskaltegiak.eus



221. alea - 2017ko abuztua

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Zenbait argibide, Itziartik”,
“Birziklatzen”,
“Deba-Reus topaketa”...

08

ERREPORTAJEA

“Polentzi Markiegi gogoan”.
Ekimen ezberdinak egingo dira urrian

10

UDALEKUAK

Aurtengo Kolorez Blai euskal udalekuetan ateratako irudien bilduma

14

LITERATURA

Mendata institutuko ikasleen amodiozko gutun eta olerki sarituak

16

SAN ROKEAK

Herriko jaietan murgiltzeko prest gaudе dagoeneko!
Hona hemen egitaraua

Berriketan aldizkariaren hurrengo alea, urrian!

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du *Berriketan* herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren erdialdean, jaien atarian, oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartean ere; hori dela eta, urtero bezala, irailean ez dela *Berriketan*-ik kaleratuko gogorazi nahi

dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, herriko festetan zein oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren

berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian.

Bien bitartean, ondo pasa uda eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahiago euskaraz!

Zuhatza Berriketan



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
euskara elkarteak

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sarbideburuarekin) Elkarrekin



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorransoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorransoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zenbait argibide, Itziartik

Ekaineko alean jasotako erantzunaren aurrean hainbat azalpen eman beharrean naiz.

Iragandako kontua izan arren, aurrekontuen atzerapena egozten zaigunez, datu pare bat azpimarratuko nituzke: 2017ko Itziarko Auzo Udalaren aurrekontuen zirriborro bat bidali zitzaiola Debako Udalarari 2017ko urtarrilaren 18an; eta gero, beharrezko kontsultaren erantzuna erdibidean geratu ondoren helarazi bezain pronto, martxoaren 28an eman zitzaiera sarrera Itziarko aurrekontuei, lehenago ere hedabideetan argitaratua den kronologiaz. Edonola ere, atzerapenarena ez da eragozpen esanguratsua, konponbiderako borondatearik balitz. Jakin badakigu harrez geroztik koordinazio bilerak abiatu direla bi alde artean, eta horixe da bidea.

2003ko martxoaren 17an argitaratutako 2/2003 Foru Dekretuak, Deban gehiengo zabalaz onartua izan zenak, Itziarko Toki Entitate Txikiari dagozkion garapen faseak arautzen ditu. Garapen fase horiek osotasunean aplikatuko bagenitu ere, soilik antolaketa administratiboaz ari gara, eta inondik inora ez da jasotzen muga aldaketarik edo lurralde banaketa fisikorik.

Ezarpen konkretuetara jotzen badugu, Debako Udalak zuzenean kudeatutako arlo

nagusiak agertzen zaizkigu. Adibidez, Itsaspe auzoko sarreran, enpresa berri bat ireki dute orain dela gutxi, konturatuko zinetenez. Gestio eta baimen guztiak Debako Udaleko Hirigintza alorrak kudeatu ditu, onartutako eskumenetan finkatutakoaren arabera. Beste hainbat adibide ere aipatu ditzakegu, hala nola Industrialdearen kudeaketa, Geoparkearen ordezkaritza, edota baserrietako berrikuntza lanen baimenak. Itziarko Auzo Udalarari dagozkion eskumen eta zerbitzuen gainetik daude, hala adostuta. Kasu eta egoera desberdinek erakusten duten bezala, hemen Udaletxe bat eta bakarra izaten jarraitzen dugu.

Orain baten batek zera galde dezake: zer egiten du orduan Itziarko Auzo Udalak? Entitate juridikoa izanik, diru-laguntzak eskatu eta kudeatu ditzake, besteak beste. Konpetentzia honi esker, eta eredu sinple bat aipatzearen, 30.000 euroko diru-laguntza lortu du aurten, Foru Aldundiari eskaria egin ondoren. Diru honekin etxerako bidea egingo zaio Sakoneta baserriari.

Itziarko Auzo Udalak Debako Udalerriari eragingo zizkion balizko kalteak ikusteke daude oraindik, eta jada bi urte pasa daramatzagu lanean. Aldiz, onurak nabari ditzakegu egunerokotasunean.

Argudioak datuz jantzi behar dira, iritziak ere bai. Lurraldetasunaren mamua astintzea oso erraza eta sentikorra da, baina ez da erreala. Begira diezaiogun Osakidetzak Itziarren duen anbulategiak betetzen duen zerbitzuari. Orain auzo udalak hartzen duen barrutian betetzen du bere zerbitzua, aspalditik. Inori burutik pasatzen zaio horregatik Debako lurraldea zatitzen duela eta desorekak eragiten dituela? Ez, baliabideen hurbiltasuna eta harreman zuzena du helburu. Anbulategia bezala beste hainbat dira bertako funtzioak. Itziarko Auzo Udalak zerbitzu horiek sendotu, osatu eta ahalmen berriak bideratzen ditu, Debako Udalerriko biztanleen %20arentzat, hain zuzen ere. Orduan, non dago "lurraldetasunaren" problema?

Hitz egin dezagun benetako arazoez eta ez ditzagun gatazka artifizialekin herritarrak nahastu. Eztabaida sinboliko antzuak eta uneko interesak alde batera lagata, zentratu gaituz arazo errealetan, elkarbizitza sustatuz eta kudeaketa hobetuz. Elkarrekin behar den bezala lan egiteak konfiantza eta itxaropena ekarriko digu denoi, itziartarre zein debarrei, kalekoei zein ingurukoiei.

Xabier Laka

Birziklatzen



Deba edozein egunetan. Honela birziklatzen da gure herrian. "Ez atez ate" daukaten herrietan bezala. A ze txerrikeria!!!!!!

Marian Larrañaga

Deba-Reus topaketa

Zer uste zenuten, hau dena Reusen gelditu zela?

Deban ez genuela han bizi genuen asteburua bizitzeko aukerarik izango?

Jakingo duzuen moduan, apirilaren 12, 13 eta 14an, debarrok Reuserako bidaia egin genuen, bertako jendearekin harreman kultural zein politiko bat sortu nahian. Topaketak izandako harrera ona ikusita, Deban itzulera egitea erabaki dugu.

Honela, urriaren 27, 28 eta 29an, Deban ezingo zarete aspertu. Xiquets de Reus taldea izango dugu "castells"-ak egiten, baita Diables eta bertako beste kolek-



tibo herrikoi eta kultural batzuk ere; bertako musika taldeak ere etorriko zaizkigu... Noski, hau guztia Debako eragile



ezberdinekin konbinatuta.

Aukera hau galduko duzu?

Deba Reus Komisia

Kantatzen

Aspaldi honetan dezentetan tokatu zait kantu taldeekin aritzea. Ahotsaren bitartez emozio edo sentipen desberdinak adierazten asmatzea, askatzea, dela uste dut kantatzea. Txiki-txikitatik egiten duguna, bestalde; edo txiki-txikitatik jaioberriari egiten dioguna, nahi baduzue. Ahotsa, kantua, delako, oro har, jai eta hil arte geurekin daramagun musika-tresna berezkoa. Musika-tresna adierazkorra (pentsa zeinen azkar sumatzen dugun, ahotsaren bitartez, hurkoaren haserrea, edo beldurra, edo maitemina...). Moldaeraza ere bada: berdin-berdin egin ahal izango duzu melodiarik goxoena zein akonpainamendurik bihurriena, tragedia bat kontatu edo jolasti agertu, bakarka edo taldean, edozein leku eta momentutan... Eta merke, gainera, instrumentu dendatik pasa beharrik gabe!

Niri neuri esperientzia ezin ederragoak eskaini izan dizkit kantuak. Barrua bete eta indarra eman izan didate. Horretaz pentsatzen aritu nintzen, bada, joan den ekainean, udaletxeko arkupe-tan, neska-mutil taldea kantatzen entzun nuenean. Lorea Urkiriren zuzendaritza-

pean, haren eskutik, gozatzen ari ziren! Dibertitzen ari ziren! Ondo pasatzen ari ziren! Musika eginez; ahotsarekin. Bihoakio hemendik Loreari errekonozimendurik zintzoena egiten duen lanagatik. Musika eskolako gaztetxoek kantu emanaldiak antzeko sentazioak sortu izan dizkit urtero.

Horrek guztiak hausnarrera eramaneu eta galdera asko sortu dizkit: non daude, orain, Loreak urtero-urtero hain ondo eramaten dituen neska-mutil horiek? Zalantzarik gabe kantatzea gus-tatzen zaien horiek? Eskaini al diegu kantuan jarraitzeko bide aproposik/egokirik? Eskaini badiegu (eta ez ditugu ikusten/entzuten), zerk egin du huts? Ze alternatiba proposatzen dugu? Ez badiegu, zergatik ez diegu eskaini? Zein izan liteke bidea?

Inpresioa dut musika-tresna batzuk beste batzuk baino gehiago baloratzen direla, oro har; eta hori izan litekeela instrumentu batzuk, ahotsa tartean, behera egin izanaren arrazoia. Zeren arabera baloratzen edo prestigiatzen dira batzuk beste batzuen gainetik? Zer paper joka-

tzen du edo jokatu behar du musika eskolak kontu honetan? Zein da haren egitekoa? Herriko taldeak elikatzea da betebeharrorietako bat, dudarik gabe. Eta hazkuntza pertsonal eta espiritualetan beti lagungarri izango zaigun diziplina bat erakustea ere bai, dudarik gabe, nik uste. Egiteko horretan, ordea, musika-tresna guztiak dira ezin aproposagoak, norberaren sentiberatasuna landu eta espresatzeko bide ematen duten neurrian: tronpeta zein pianoa, klarineta zein txistua, perkusioa zein kantua... Guztiak maila berean bultzatu behar-rekoak, nik uste.

Baina kantuari buruz ari nintzen. Euskal Herria aberatsa dugu, oso, kantuetan. Oso herri kantaria izan gara tradizionalki: kantatu diogu maitasunari, ardoari, lurrari, jainkoari... Gustatuko litzaidake kantatzen jarraitzea, "kantatzen ez duenak zorionik ez baitu". Kantatzen gazteak, kantatzen zaharrak, kantatzen umeak; kantatzen, esaten, adierazten... izaten.

Amaia Zinkunegi

Gernikako haritz-kumea Deban

Euskal kultura, haritza hitzari eta gure historiari lotua dago

Euskal kultura, eta beste herrietakoan ere, zuhaitzak, bereziki haritzak, denboran iraunkorra dena adierazten du, bere gerizpean egindakoen eta hartutako erabakien lekuko izaten zelarik. Zuhaitza benetako bazkidea zen batzarretan eta komunitateko akordioen lekuko denboran zehar. Haren gerizpean hartutako erabakiek ez zuten sinadura beharrik; hitza betetzearen lekuko zen zuhaitza. Horrek baino garrantzia gutxiago ez duena: zuhaitzek zehazten zituzten eremu arteko mugak, abere eta gizakien janari zen haien ezkurra eta zura, berriz, eraikuntzarako erabiltzen zuten.

Agirietan agertzen den Gernikako arbolarik aspaldikoena XIV. mendekoa da, eta "Antzinako" hariztian zuen jatorria, honen berri XII. mendean geroztik badularik. Lehenbiziko arbola hau "Arbola Aita" izenez da ezaguna (1334-1742) eta 1881ean ihartu zen. Haren gerizpean sinatu zituzten Gaztelako errege-erreginek Bizkaiko Foru edo Lege Zaharrak.

1742an "Arbola Zaharra"-k hartu zuen haren tokia, eta, 1839an, Maria Cristina Erreginordeak sinatu zituen Lege Zaharrak Isabel II.a erreginarenean. Sinatze hura egiten zen azken aldia izan zen, 1859an bi urteko landare bat landatu zuten tenpletearen aurrean, handik bi urtera ihartu zena. "Arbola Zaharra" 1892an ihartu zen eta 1926an tenplete txiki zirkular batean ezarri zuten Batzar Etxearen albo batean.

"Arbola Semea" 1861ean landatu zuten. Honen gerizpean egin zuen zin Jose Antonio Agirre lehendakariak eta berau izan zen 1937ko bonbardaketaren lekuko. Tropa frankistek Gernika hartu zutenean, falangistek Arbola botatzeko asmoa zutela zabaldu zen; baina, erreketean eskuadroi armatu batek, inguratu eta, botatzea galarazi zuten.



Arbola zaharra 1892an hil zen.



Deban 2015eko apirilaren 28an landatu zen kimua.



Debako haritza, aurtengo ekainaren erdialdean

razi zuten.

"Arbola Semea" 2004an ihartu zen *Armillaria mellea* onddoa zela medio, eta 2005eko otsailan ordezkatu zuten, 1986an jaiotako haren kumeetako bat landatuz. 2014an gaitz larri bat harrapatu zuen eta 2015eko urtarrilaren 14an ihartutzat eman zuen Euskal Herriko Unibertsitateak. 2015eko martxoaren 2an, 2000. urtean jaiotako eta urtero 450 landare erretzen diren foru mintegian hazi eta gero, sendotzeko, Arratiako basoetara tokialdatzen dituzten arboletako bat landatu zuten haren tokian.

Zuhaitzak bizirauteko, tokiak du garrantzia handia. 1742an, "Arbola Aita" egon zen tokia laga eta beste bat aukeratu zuten eta, uste denez, ez zen aldaketa egokia izan, gaur egun etxek eta zementuz inguratua baitago gune umel eta laioz; eta, lurrazalean haitza ageri denez, horko zuhaitzek ehun urte nekez har ditzaketela uste du jendeak; beraz, apur bat aldatu egin dute gune hori, sustraien hazkundera hobetzeko asmoz.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro

Arbola behin baino gehiagotan ihartu da; baina, inoiz ez dio utzi ikur izateari eta beti izan dugu kume biziren bat ihartuaren tokian jartzeko. Gure Gernikako Arbolararen kume hezeak ongi merezia luke plaka bat, hitzaren balioa, euskal askatasunen ikurra eta Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena gogorarazten jarrai dezan

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2



Santiagorako Bideetatik bi egokitu dira Deban eta Itziarren

San Rokeko galtzada edo bidea Debako hirigunea eta Itziar lotzeko bide zaharra da, XIV. mendean jada existitzen zena, eta komunikazio bide bakarra izan zen Donostia-Bilbo errepidea eraiki zuten arte, XIX. mendearen erdi aldera. Bide hau ibiltariak, kargarako animaliek eta gurdiek egiten zuten.

Gaur egun, hogeita hamar bat urte tik hona, hormigoi kapa batek estaltzen du aurretik zegoen kareharrizko harzola. Bertatik pasatzen dira autoak eta pasieran dabilen pertsona ugari; baita Santiagoko bidea egiten ari diren erromesak ere (20.000 inguru joan den urtean, 2016an). Bestalde, Talaia ibilbidean sartua dago, Zumaia-Deba bide-zatian.

Debara jaisteko azken bide zatian ibiltariak erori egiten dira askotan, batez ere euria egiten duenean, zoladura gastatua eta leundua dagoelako. Istripu arriskua txikitzeko ez labaintzeko asfalto kapa bat bota da, metro bateko zabalera duena, bidearen aldeetako batean; erretxin gorrixka batekin estali da asfalto hori, ibiltariak argi

identifika dezan nondik komeni den ibiltzea. Lan hori Agirretzeko ur depositutik San Roke ermitaraino egin da, 220 metroan.

Ez labaintzeko banda hori ez da oinezkoentzat bakarrik izango, bideak zabalera txikia duenez, autoek, elkar gurutzatzerakoan, zapaldu beste erremediorik ez baitute izango; dena dela, oinezkoei segurtasuna emango die.

Bidearen zabalera osoa ez asfaltatzea erabaki da, besteak beste, horrek, autoak azkarrago ibiltzea ekarriko lukeelako, motordun ibilgailuentzako diseinaturik ez dagoen landa-bidean istripu arriskuak areagotuz.

Lan horien kostua 17.000 eurokoa izan da eta Santiagorako Bideen Debako Lagunak elkarrekin ordaindu du osorik. Diru hori geltokiko aterpetxean egoitza hartzen duten erromesen ekarpenetatik eskuratu da (joan den urtean, 2016an, 9.150 euro bildu ziren).

Itziarrera iristeko beste bide bat ere berreskuratu da. Bide gurutzetik hirigunera igotzen den bide zaharra; aspal-

di erabiltzeari laga zitzaiona eta, erabilerara faltagatik, landaretzak hartua zuena. Horregatik, itziartarrek eta gainerako ibiltariak errepide bazterretik ibili behar izaten zuten, espaloirik gabe eta poligonorako joan-etorriko trafiko handiarekin. Horrek deserosotasuna eta, batez ere, oinezkoak harrapatzeko arriskua ekartzen zuen. Itziarrerako sarbide berri honekin, arrisku hori desagertu egingo da, bidea oinezkoentzako soilik izango da eta. Bide batez, bide historiko bat berreskuratu dugu, hasiera-hasieran zituen bost metroko zabalarekin berreskuratu ere.

Sarbide honen garbiketa eta seinalizazio berria Debako Udalak sustatu du eta 2.500 euroko aurrekontua izan du. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta Itziaroko Tokiko Entitate Txikiaren eta Santiagorako Bideen Debako Lagunak elkarrekin ekarpenak izan ditu.

*Santiagorako Bideen
Debako Lagunak*

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknika (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresioak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

Bordatxo
JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aterak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

POLENTZI MARKIEGI GOGOAN

Bere fusilamenduaren 80. urteurrena aurten betetzen dela eta, ekimen ezberdinak egingo dira urrian



Gurean gerrak eragindako txikizioen artean, Markiegiren fusilamenduaren urteurrena oroitzera goaz. Mendekuzko hilketa izanik, are krudelagoa azaltzen zaigu sasi epaiketa baten ondoren faxistek burutu zuten fusilamendua. Herriko alkate bezala, herrigintzan buru-belarri aritutako gizona izan genuen Polentzi. Berarekin batera Debako Udalean lanean jardun zuten zinegotziek eta funtzionarioek erbestea eta errepresioa ezagutu zituzten. Herritar askoren bidea ez zen samurragoa izan, bostehunetik gora lagunek ihesean alde egin zuten altxatuak Debara sartu aurretik. Markiegi bera, gurasoak agurtu ondoren, zubia oinez zeharkatuz, bueltarik gabeko bide garratz batean joan zitzaigun.

Faxistak altxatu zirenetik, babes lanetan aritu zen Polentzi, gerran harrapatutako zibilen alde. Eginkizun horiek hainbat arazo sortu zituzten arren, alde bateko zein besteko errefuxiatuak lagundu zituen. Batzuei, berak pertsonalki, beste aldera igaro zitezkeen arriskuak bere gain hartuz; besteei, Deba erori ondoren, bere laguntza eskainiz. Errefuxiatuekin izan zuen

jarrera gaur egungo agintarien jokamoldearekin parekatzerik ez dago, inondik inora. Gaur egungo errefuxiatuenganako politikak Markiegi bera lotsagorritzeko modukoak dira.

Urteurren honen bitartez, Markiegiren izenarekin batera, izenik gabeko milioika errefuxiatuak ere ekarri nahi ditugu gogora

Franco eta enparauen altxamenduak piztu zuen gerrak, bere gordinean, ikasgai asko utzi zitzaigun. Ihesean joandakoek edo kanporatutako zibil ugari pairatutakoek ez dute ezertarako balio izan, laurogei urte igaro ondoren egoera berdina edo okerragoan ikusten baititugu, egunero, komunikabideetan milioika lagun. Hesi tartean etsita, Europara begira, Gerra Zibiletik

euskaldun asko joan ziren modura. Bat-batean dena galdu duenaren begirada berberarekin azaltzen zaizkigu, laurogei urteko aldearekin, Siritatik datozen giza uholde horiek eta Zumaia edo Debatik faxistek kanporatu zituzten familiak. Europak, bere balizko balioak, txiki-txiki egin ditu errefuxiatuei emandako tratuekin.

Urteurren honen bitartez, Markiegiren izenarekin batera, izenik gabeko milioika errefuxiatuak ekarri nahi ditugu gogora; hark egindako lanak gure gabezi eta itsukeriak azpimarra ditzan.

Ekitaldien egitaraua:

-**Urriak 5, osteguna.** Arratsaldeko 18:30ean, Ispiluen gelan:

-Markiegiren Urteurrena herritar taldearen aurkezpena.

-Jokin Lasa eta Miquel Saumell.

-Hitzaldia: "*Lehenengo Eusko Jaurlaritz*". Leyre Arrieta Alberdi. Historia Garaikidean doktore eta Deustoko Unibertsitatearen Donostiako egoitzan irakasle.

-**Urriak 7, larunbata.** Gurseko etxolak ezagutuko ditugu. Euskal Herriko Unibertsitateko Historia irakaslea den

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA





Josu Chuecaren gidaritzapean. Goizeko 9:00etan Estalitako Pasealekutik autobusean irten eta bazkal ondoren bueltatuko gara. Debatik pare bat ordura dago Gurseko kanpamendua. Bertan, gerra bukatu ondoren, sei milatik gora euskaldun izan ziren hesi artean atxilotuak. Errefuxiatu kanpamendu baten egitura eta bizimodua bertatik bertara ezagutzeko aukera aparta.

-Urriak 8, domeka. Goizeko 11:30ean Meza Nagusia, Markiegi eta gerraren biktima guztiei eskainia. Ondoren, kanposantuan lore eskaintza egingo dugu.

-Urriak 10, asteartea. Burugorri

gainean Itziarren:

Hitzaldia: "Gernika, argiak eta itzalak". Ismael Manterola Ispizua. Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako irakaslea. Picassoren Gernika artelanetik abiatuta, margolariaren eta bere inguru pertsonal, sozial eta politikoaren analisia egingo digu Ismaelek. Artea eta artistaren betebeharrak, interakzio eta konpromisoak. Margolanak berak islatzen dituen influentziak eta ekarpenak.

-Urriak 15, igandea. Ekitaldi instituzionala.

Markiegiaren fusilamenduaren 80. urtemugako lantaldea



Seven Clovers
Irish pub
943 191 295

AUKERA
INMOBILIARIA
www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!
943 12 13 95 



Kolorez Blai Udalekuak

'Kolore artean mugituz, eskuak gora altxatuz'... konturatu orduko amaitu zaizkigu 2017ko Kolorez Blai udalekuak! Zein ondo pasa dugun elkarrekin!

Aurten herrikuntzak egin nahi izan ditugu eta pozik gaude emaitzarekin! Erromerian giro polita jarri dugu, Mariñel egunean Debako kulturaz gozatu eta ikasteko aukera izan dugu, puzgarria urez bete eta eskolan bainatzen ibili gara eta, nola ez, azken eguneko irteera... MUNDIALA! Hernaniko igerilekura joan gara eta ezin hobeto pasa dugu txirristetatik botata!

Eguraldiak ez digu askorik lagundu eta aurrez prestatutako gauza asko aldatu behar izan dira, baina begiraleek lan bikaina egin dute egoera honen aurrean! Eskerrak eman behar dizkiegu udaltzain taldeari eta brigadako langileei ere, laguntza ikaragarria izan baitugu beraien aldetik. Eta, nola ez, baita gudan konfiantza jartzen duzuen orori ere, eskerririk askooooo handi bat! Ondo pasa oporrak eta hurrengo urtera arte, *Kolorezale!*

Zuhatza Euskara Elkarteko Kolore Anitz Aisialdi Taldea





“Euskaldunok dantzan ez dakigula esaten duen horri kontrakoa erakusteko” ikuskizuna, Eidaberen eskutik



Herrialde eta estilo ezberdineko dantzak Debako zumar-dira ekarri zituen Eidabe Ekimen Kulturalak talde bizkaitarrak joan den uztailearen 11n, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuta. “Euskaldunok dantzan ez dakigula esaten duen horri kontrakoa erakusteko” helburuz, “Txapela buruan eta dantza munduan” ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Eguraldi ederra lagun, emanaldi parte-hartzailea eta alaia izan zen, dantzatzeko grina sortzeko ikuskizun bizia, alegia.



Badugu 2017ko Euskal Jaia iragartzeko kartela



Datorren irailaren 30ean (larunbata) ospatuko dugu garai berriko XX. Euskal Jaia Deban. Urruti samar ikusten da oraindik ere ospakizuna, baina dagoeneko abian daude antolaketa lanak. Horren adibide da, adibidez, uztailean Zuhatza Euskara Elkarteak antolatu duen kartel lehiaketa.

Aurtengo edizioan bost lan aritu dira lehian. Kartel guztiak uztailearen 20an egon ziren ikusgai udal-etxe azpiko arkupeetan, eta herrita-

rrek bozka bidez hautatu zuten kartel irabazlea. Guztira 341 lagunek parte hartu zuten bozketan eta 164 boto jasota irabazi du lehia **Ane Landak** (alboko argazkian ageri da kartelarekin), bigarren lan bozkatuenari 82 botoko aldea aterata.

Zuhatza elkarteak 300 euroko saria eman dio jada irabazleari.

Eskerrik asko aurtengo bozketan parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, lanak aurkeztu dituzuenoi!


ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Udan antolatu dituen ekimenetan parte hartzeko deialdia egin du Caritas elkarteak

Debako Caritas elkarteak, pobreak edota bazterkeriak jotako pertsonekin, Bizirauteko eta Gizarteratzeko hainbat proiektu ditugu martxan:

BIZIRAUTEA. Arazo ekonomikoak dituzten familiei laguntza. Guztira 55 familia inguru, bertakoak nahiz kanpokoak. Bi erako laguntzak ematen ditugu:

- Ekonomikoak: etxebizitza gastuei aurre egiteko gastu batzuen ardura hartzen du. Gaur egun 7-8 familiari ematen zaio laguntza hau (GRI-a jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenak).

- Elikagaien Banaketa (*Banco de Alimentos*). Gaur egun, 47 bat familiari banatzen dizkiogu elikagaiak.

GIZARTERATZE PROIEKTUAK. Debako Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean, ondoko proiektuak ditugu martxan:

- Baratza Proiektua: Lan mundura egokitzeko alde aurreko pauso modura antolatuta dago; bertan, ordutegia, betebeharrak, ardura, diziplina eta beste arlo batzuk lantzen dira baratza elkarlanean aurrera eramateko. Lortzen diren elikagaien %50a Elikagai Bankura doa eta beste %50a lanean dihardutenen artean banatzen da.

- Alfabetizazio eta integrazio proiektua: EPA-n (*helduen hezikuntzako ikastetxean*) sartzeko eskatzen den maila lortzeko prozesua da. Atzerriko pertsoneri bideratua dago.

MALIKO SAN ESKOLA. Atzerrian, Gipuzkoako beste eliza batzuekin elkarlanean, Maliko San eskualdean dagoen Togo herriko **Saint Paul** ikastetxeko umeentzako laguntza ematen dugu. 650 ikasle daude eskolan, horietatik 250 internoak dira, beraien jatorriak eta eskolara asistentzia ziurtatzeko. Urtean kontainer bat bidaltzen saiatzen gara beharrezkoak diren gauzakin: liburuak, jostailuak, arropa...

PARTE HARTZEKO ESKAERA. 2008tik, krisia hasi zenetik, Debako Caritasek jasotzen dituen eskaera kopuruak gorakada izugarria izan du. Ondorioz, diru sarrera finkoekin ezin diogu aurre egin, eta, beraz, finantzaketa arazo larriak izaten ditugu.



Adibidez, 2016an, 40.000 euro behar izan genituen proiektu hauek guztiak mantentzeko, eta diru sarrera finkoa soilik 6.000 eurokoa izan zen. Azken urte hauetan ez gara gai izan herriko beharrei gure kasa erantzuteko eta eskualdeko edota Gipuzkoako Caritasera jo behar izan dugu. Egoera horren aurrean, 2017an dirua biltzeko ekintza desberdinak antolatzea erabaki dugu:

- San Roke jaietako **Tonbola**: abuztuan zehar Sagarna denda zegoen lekuan (Portu kalean).

- Irailaren 9an **KONTZERTU SOLIDARIOA**: Amancio Pradak musikatutako San Juan de la Cruz-en poesien kontzertua: "Cántico Espiritual de San Juan de la Cruz". Duela 40 urte "Cántico" hau estreinatu zuenetik, mundu guztian zehar interpretatu du 300 eszenatoki baino gehiagotan. Sarrerak lortzeko: www.amancioprada.deba.com web orrian edo turismo bulegoan.

Udako ekintza hauetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Debako Caritas elkarteak

Goi Paleolitoko hainbat grabatu aurkitu dituzte Arbil V kobazuloan

Uztailaren 18an, Errenteriako Aizpitarte IV kobazuloan Goi Paleolitoko hainbat grabatu eta behe erliebe aurkitu izana jakinarazi zutenetik astebera, labar arteari lotutako beste aurkikuntza baten berri izan genuen. Begirada gertuago jarrita dago orain, ordea. Lastur bailarran kokatuta dagoen leize batean, hain zuzen. *Arbil V* eta *Sustraxako koba* izenekin katalogatuta dagoen kobazuloaren hormetako batean bi oreinen irudiak agertu dira, baita beste hainbat grabaturen aztarnak ere. Haiak ikertzen hasi besterik ez dira egin, baina adituek nahiko ziurtzat jotzen dute Madeleine aldikoak direla



Gipuzkoako Foru Aldundia

grabatuok, inguruetakoa leizeetan -Ekainean, adibidez- agertutako garai berekoak, alegia.

Aurkikuntza martxoaren 26an egin zuten Azpeitiko Antxieta Jakintza Elkarteak kideek, eta, handik egun gutxira,

EHUko aditu talde batek egiaztatu zuen.

Uztailaren Donostian egindako agerrian azaldu dutenez, oraindik ere horma bakar bat aztertu dute, eta bertan agertu dira grabatuak, "oso trazu finekoak, oso zailak ikusten". Bi animalien irudiak aurkitu dituzte: orein eme baten irudi osoa eta elur orein ar bat izan daitekeen beste figura bat. Beste hainbat aztarna ere agertu dira horma berean, baina oraindik ez dituzte identifikatu.

Ondorioak behin-behinekoak badira ere, litekeena da irudiak Goi Paleolitokoak izatea, Madeleine arokoak; duela 11.000 eta 15.000 urte inguru eginak.

AMODIOZKO GUTUNAK 2017

Uztailean egin bezalaxe, *Berriketan* aldizkariaren abuztuko alean ere Mendata institutuko ikasleen lan batzuk bildu ditugu irakurleontzat. San Balentin egunaren bueltan, amodiozko gutunen lehiaketa egin zuten institutuan eta lehiaketara aurkeztutako lan aipagarri batzuk bildu nahi izan ditugu orrialde hauetan.

Laugarren mailako ikasleek gutun itxurako idazlanak aurkeztu dituzte lehiaketara eta lehenengo mailako gaztetxoek olerkiak prestatu dituzte. Saritutako lanak eta aipamen berezia lortu dutenak dituzue hemen irakurgai:

AITARENTZAKO GUTUNA

Kaixo aita, zer moduz zaude? Espero dut oso ondo egotea zauden tokian. Asko botatzen zaitut faltan. Egun haue-
tan asko gogoratu naiz zutaz eta behin eta berriz galdetzen diot neure buruari ea zer egingo duzun hor.

Faltan botatzen ditut lehen zure ondoan pasatzen genituen momentu on eta dibertigarriak. Badakit orain ezinezkoa dela gauza horiek guztiak egitea, baina zuganako ditudan sentimendu guztiak adierazi nahi dizkizut gutun honen bidez. Ez dakit zuk zer pentsatuko duzun nitaz, goitik ikusita.

Egia esan, ikasketetan berdin jarrai-

tzen dut, ez dut askorik aldatu, baina gogoia jartzen saiatzen naiz. Hurrengo urtean erdi mailako ziklo bat egitea pentsatuta daukat, baina burua oso nahasia dut hainbeste gauzarekin.

Maria eta ni oso ondo moldatzen ari gara etxean, etxeko lanak banatuta ditugu eta aspaldian ez dugu haserrealdirik izan, ezagututa nolakoak garen biok asko harritzen nau horrek.

Azkenaldi honetan inoiz baino gehiago bota zaitut faltan; baina lepoan dudan lepokoa begiratzean, lasaitu egingen naiz, nire baitan egongo bazina bezala sumatzen zaitudalako, eta

horrek poztu egiten nau.

Gutun honen bidez jakinarazi nahi dizut zenbat maite zaitudan eta ez zaitudala nire bizitza osoan ahaztuko. Badakit beti egongo zarela nire ondoan eta hor egongo zarela ni babesteko. Bizitzan izan dudan pertsonarik garrantzitsuena izan zara aita, baina norbera ez da benetan konturatzen zuretzako garrantzitsua den pertsona hori faltan duzun arte eta, zoritxarrez, niri hori gertatu zait.

AITOR IBARLUZEA
(4. maila. Aipamen berezia)

NIRE ALTXORRA

Bat-batean, nire bizitzan agertu zinen. Zu ikustean, tximeletak sumatu nituen tripan. Ez nuen jakin nola jokatu, baina berehala elkartu ginen.

Ez zenuen alde txarrik, dena zen ona. Neska nahiz mutil, ez zuen axola, gustura nengoen zurekin.

Zurekin orduak eta orduak pasa ditzaket, nire burmuina zutaz pentsatzen dabil goiz eta gau egunero, ezin dut ezer egin, zu zara nire biziaren

oinarria, zu zara nire droga.

Nolakoa zaren gustatzen zait. Zure biribiltasunek liluratu egiten naute. Batzuetan, min ematen dizudanean haserretzen zara. Orduan ezin izaten dut zurekin disfrutatzen jarraitu.

Zu ikutzeak plazer handia sortzen dit eta zurekin jolastea gogoko dut. Joko ugari dakizkizu, ez duzu ezer txarrik, ezin naiz zutaz pentsatzen gelditu eta ez dakit zer egin. Betidanik esan

didate ikasketak lehenak direla.

Beraz, aste bukaeran egongo gara, *play* maitea.



IÑAKI ALDAZABAL (4. maila. Ikasleek aukeratutako lehen saria)



MAITASUNAREN MENPE

Eguzki izpiak bezala,
egiten duzu argi.
Otsoak ilargi beteari begiratzen dion bezala,
nik begiratzen dizut zuri.
Begietara begiratzen dizudanean,
bihotza egiten zait azkar mugi.
Zure muxuak dastatzean,
sentitzen naiz bizi.
Haizeak jotzen dizunean,
egiten duzu irri.
Nik zu,
maiteko zaitut beti.

MAITE APERRIBAI
(1. maila. Aipamen berezia)



MAITASUN ISTORIO BATEN ZAIN

Letra batzuekin maitemindu nintzen,
soinu batekin,
irri batekin;
burutik zu kendu ezinik,
otsoak ilargia bezala
txoratu nintzen;
kaletik ibilita
galdu nintzen zure pentsamenduan;
eta orain hemen nago,
zure begirada baten,
kutun baten,
muxu baten zain,
esnatzeko
eta konturatzeko
zu nire amets onena izan zarela.

MARTINA SOTO
(1. maila. Aipamen berezia)



Abuztuak 12

Galerna Festa

11:00. Aurreko egunetan jokaturako kirol txapelketako finalak hondartzan.

15:00. Bazkari herrikoa, txosna gunean.

18:00. Kalejira Matraka Elektrotxarangarekin.

23:00. Kontzertuak txosna gunean:

- Zopilotes Txirriaos
- Egurra Ta Kitto
- Fand&Go erromeria



Abuztuak 13

igandea

Eguerdian herri kirolak kaleetan zehar.

20:30. Desenkajonamentua Foruen plazan.

Ondoren, entzierriloa plazaatik Osiora.

'Udalaren oharra:

Zezenei ez zaie inon eta inolaz deitu behar (ez plazan ez ibilbidean), eta ez da haien arreta bereganatu behar. Entzierriloa korrikalari gabe egingo da.

Abuztuak

14

Festen hasiera

18:00: San Roke festen hasiera. **Kanpai errepika** eta udaletxeko balkoitik **txupinazoa** botako dute San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin **zapi gorria jantziko** zaio San Rokeri.

Jarraian: **Kalejira**, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldi eta buruhandien laguntzaz).

19:30: Udaltza elizara abiatuko da Alkate Soinua entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko ditu. Ondoren, **Hilarion Eslavaren salbea** abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30: **Danborrada** Ozio-Bide Elkartearen eskutik.

01:00: **Erromeria EZTEN GIRO** taldearekin, karpan.

Abuztuak

15

Umeen eguna

09:00: **Diana**, Banda Gaztearekin eta Debako Gaiteroekin.

10:00: **Entzierrroa**, umeentzako.

11:30: **Kalejira** Luzaro eskolatik. Plaza zaharrean San Roke Txikiri dantza egingo zaio.

11:30: **Kalejira** Musika eskolatik (danborrada eta erraldi txikiak). Berasaluze plazan Tatiago eta erraldi txikien dantza.

12:00: **Plazako jaialdia:** danborrada, herri kirolak, dantzak eta zezenak. Ondoren, Umeen Eguneko rifa zozketatuko da.

13:00: 2016ko abuztuaren letik aurtengo uztailaren 31ra bitarte jaiotako **haurrei zapi gorria** jarriko die alkateak udal pleno aretoan.

16:00: **Puzgarriak** (10 urte bitarte koentzat), Simon Berasaluze plazan. **Puzgarri erraldoia** zezen plazan (10 urtetik gorakoentzat).

20:00: **Umeen pilota partidak (finalak)**, Aldats pilotalekuan.

20:00: **MELISSA & THE JACKS**, plaza zaharrean.

23:45: **Kontzertua**, karpan: **ESNE BELTZA, KOP eta SUA ERROMERIA.**

Abuztuak

16

San Roke Eguna

07:00: **Diana**, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: **Entzierrroa.** Ondoren, enbolatuak Arrizabalaga Anaien ganadua-rekin.

09:30: Gure Kai Taldekoen **Ezpata Dantza** plaza zaharrean, San Rokeren irudiaren aurrean. Jarraian, Udaltza beste herritar guztiakin batera ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, **Larrain Dantza** egingo da plaza zaharrean (Lizarrako Gaiteroekin eta erraldioen eta buruhandien konpar-tsarekin).

12:30: **Aureskua** Foruen Plazan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, **enbolatuak** Arrizabalaga Anaien ganadua-rekin.

Jarraian: **BERRIAK** Txaranga, kaleetan zehar.

18:00: **Bertso-trama** karpan.

18:00: **Umeentzako ekitaldia** Simon Berasaluze plazan.

18:00: **Zezenketa**, Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo ganadutegiko idiskoekin.

Toreatzaileak: Alfonso Ortiz eta Juanjo "Villita". Sobresalientea: José Manuel Serrano. Ondoren, **enbolatuak** umeentzat.

Jarraian: **Kalejira** musika bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

20:30: **Nafar jotak** plaza zaharrean.

23:30: **Su artifizialak** hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

00:00: **Kontzertua**, karpan: **Liher**.



Mariñel Eguna

06:30: **Kardantxuloak Kantuan**, Pato abeslari nafarrarekin. Irteera plaza zaharretik.

10:30: **Jorrai Dantza** herriko kaleetan, Gure Kai dantza taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

12:30: **"Sardina freskue"** umeentzako ikuskizuna plaza zaharrean.

12:30: **Kardantxuloak eta bertsolariak**.

15:00: **Bazkari herrikoia** karpan.

17:30: **Kalejira**, Lizarrako Gaiteroak eta **ORIA** txarangarekin.

18:00: **Entzierroa**. Ondoren, gazte kuadrilen arteko **jokoak** plazan.

19:00: **"Bankako menditarrak"** euskal kantak Ostolaza kalean.

20:30: **EONIAN Elektrotxaranga** herriko kaleetan zehar.

00:00: **Larrain dantza** plaza zaharrean.

00:00: **Kontzertua**, karpan:
-THE RIFF TRUCKERS
-EUSKATALITES

Abuztuak

18

Kanbo eguna

07:00: **Diana**, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: **Entzierroa**. Ondoren, enbolatuak Arrizabalaga Anaien ganadurekin.

10:30: **Artisau feria**, eguerdiko 15:00ak arte.

11:30: **Ongietorria Kanboko ordezkari**.

11:30: Udalak eskainita, Zaharren Egoitzan, **hamaiketako adinekoentzat**. Bertan, trikitilariak izango dira, eta parte-hartzaileen artean zezenketarako 9 sarrera bikoitz zozketatuko dira.

Ondoren: **The Joselontxo's Txaranga**, herriko kaleetan zehar.

12:30: **Enbolatuak** Arrizabalaga Anaien ganadurekin.

18:00: **Umeentzako ekitaldia**, Simon Berasaluze plazan.


18:00: **Zezenketa**: Tamameseko (Salamanca) La Ventana del Puerto ganadutegiko idiskoekin. Toreatzaileak: Fernando Plaza eta Manuel Diosleguarde. Sobresalientea: José Manuel Serrano.

Ondoren: Erraldoi eta buruhandien **Agurra** plaza zaharrean, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

00:00: San Rokeren irudiari ohiturazko **zapi gorria** kenduko zaio.

SAN ROKEAK 2017

Abuztuaren 14tik 18ra



Aurengo jaietako kartela
duzue goikoa.
Aritz Loiola da egilea.

AGENDA

ABUZTUAK 14-18

-**San Roke jaiak.** Egitaraua aldizkari honetako 16. eta 17. orrialdeetan duzue ikusgai. Abuztuaren 12an eta 13an ere ekimen ezberdinak burutuko dira.

ABUZTUAK 25, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, Foruen plazan.

-22:00. **Dokudantza: "Oskara"** -Kukai dantza taldea-, plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

IRAILAK 1, OSTIRALA

-20:30. **Musika: Amorante**, plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

IRAILAK 2, LARUNBATA

-**Deba ibaiaren jaitsierak** (stand up paddle-ean egiten dira). Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: www.yakosurf.com ataria edo 943029600/628529695 telefono zenbakiak.

IRAILAK 8, OSTIRALA

-20:30. **"Irakurle-kantari-kontalari"**. Historian

zehar Deban izan ditugun euskal literaturgileak eta eurek egindako lanak ezagutzeko aukera eskainiko du emanaldiak, plaza zaharrean (*Iturri ondoan*).

IRAILAK 9, LARUNBATA

-20:30. **Kontzertu solidarioa: Amancio Prada**, Santa Maria elizan. Debako Caritas elkarteak antolatuta du hitzordua -informazio gehiagorako, jo aldizkari honetako 13. orrialdera-.

IRAILAK 10-11

-**San Nikolas jaiak** Lasturren. Jarraipena izango dute irailaren 15-16ko asteburuan. Egitarau berezia izango da.

IRAILAK 15, OSTIRALA

-21:30. **"Su à Feu"** ikuskizuna (Deabru Beltzak konpainia), kaleetan zehar.

IRAILAK 23, LARUNBATA

-18:00. **Irri Banda.** Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, Debako Musika Banda, Debako banda gaztea, Kulunka dantza taldea eta musika eskolaren laguntzarekin. Aldats pilotalekuan.

Irailak 30, larunbata: Euskal Jaia 2017

Egun osoko egitaraua izango du garai berriko XX. Euskal Jaiak eta dagoeneko badugu ospakizuna iragartzeko kartela (Ane Landak sortua, eta herritarrek bozka bidez hautatua Zuhatza eskara elkarteak antolatutako lehiaketan).

Udako oporretatik bueltan, Euskal

Jaiak prestatzen joateko bilera bat egingo du Zuhatzak. **Irailaren 15ean (ostirala) izango da batzarra**, 18:00etan, elkartearen bulegoan. Jai herrikoia izan dadin, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da berriz ere. Beraz, badakizue, guztiok zaudete gonbidatuak! Animatu!



Debako XXXIV. Udako Musikaldia

Aurtengo Udako Musikaldiaren baitan antolatutako kontzertuen egitarauak abian jarraitzen du. Datozen hitzorduek:

***Abuztuak 24: Sigma Project Sax Quartet.**

***Abuztuak 31: Cuarteto Idomeneo.**

Emanaldiak elizako klaustroan burutuko dira, iluntzeko 20:00etan.

Erakusketa

"**Tentazioak**" arte erakusketa kolektiboa dago ikusgai Santa Maria elizako klaustroan, abuztuaren amaierara arte. Orduetgia: asteartetik larunbatera, 17:00etatik 19:00etara; igande eta jaiegundetan, 17:00etatik 20:00etara.

XII. Tene Mujika Beka

Abian jarraitzen du Tene Mujika beka. Debako Udalak egin du deialdia, Elkar argitaletxearen laguntzarekin, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaldu eta gure literatura aberasteko helburuarekin. Lanak 2017ko abenduaren 11 baino lehen artxiboa@deba.eus helbidera bidali beharko dira. Informazio gehiagorako: www.deba.eus.

Udako ordutegia udal liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegiarekin jarraitzen du.

*Liburutegi orokorra: asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur/gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Abuztuaren 14tik 18ra arteko astea itxita egongo da, herriko jaiak direla eta.



ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abuztuak 18, 19, 20, 28, 29, 30, 31.**
irailak 15, 16, 17, 25, 26, 27, 28.

Burgoa Zuazo: **abuztuak 14, 15, 16, 17.**
irailak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 19 eta 26

BURGOA ZUAZO: abuztuak 12 / irailak 2 eta 9

9:30 - 13:00



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: undersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



MARIE CASTRO IRIBARREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTARLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso

Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea
Berrietan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berrietan@zuhatza.com




JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



50 URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Otarkekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan trañoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



kutxabank

hemen eta orain



Hazirik

ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com



Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**AISIALDIAZ
GOZATZEKO
HAMAIKA ARRAZOI
ETA MILA AUKERA...**



**HERRITIK ETA
HERRIAREN TZAKO
EUSKARATIK ETA
EUSKARAZ!**

Zuh-tza
euskara'kaneu' -tatu

